

BERTARATURIK

Alde batetik **ESKORIATZAKO UDALA, EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIAK** ordezkaturia, alkate-udalburua den heinean,

Beste aldetik, **GIZABIDEA FUNDAZIOA, ARITZ OTXANDIANO KANPOK** ordezkaturia, zuzendaria den heinean,

ADIERAZTEN DUTE

2019an Debagoieneko hainbat udalerrri, erakunde publiko eta eragile lankidetzak tresna gisa erabiltzeko "Debagoiena 2030" proiektura batu ziren. Debagoiena 2030ek lau foku nagusi ditu, iraunkortasuna eta energia, Lanaren etorkizuna, Aukera berdintasuna eta Hezkuntza eta honen guztiaren dinamizatzailerik eta bultzatzailearen rola Gizabidea Fundazioak dauka.

2020ko ekainaren 18an egindako bilkuran, Udaltzarrak "D2030 Garapen jasangarriko sarea" izeneko ekimena sustatzeko konpromisoa hartu zuen.

Sinatutako proiektuaren erronka nagusia da Debagoiena eskualdearen trantsizio jasangarria egitea, erakunde publikoen, eragile ekonomikoen, ezagutzaren eragileen eta gizarte eragileen arteko lankidetzak mekanismoen bidez, eskualdearen egungo egoeraren diagnostikoa bat eginez eta agenda partekatua bat definituz, etorkizunean planteatzen diren erronka askotariko eta konplexuei irtenbidea emateko. Ildo horretan, proiektu bateratuaren ikuspegiaren abiapuntua ingurunearen garapen komunitarioan sakontzea da, 2050erako eskualde adimendun, inklusibo eta klimatikoki neutroa lortzeko. Neutraltasun hori emateko, 2020ko irailean Energia Trantsizioa bultzatzeko prozesu bat abiatu zen. Prozesuaren helburua da, eskualdeko eragileen artean energiak planteatzen duen erronka aztertzea eta lankidetzan oinarritutako hainbat ekintza diseinatzea eta garatzea. Eta hauen artean dago "Ikastetxeaklik".

Ikastetxeaklik proiektuak, ikastetxeetan energiaren aurrerakia eta eraginkortasuna sustatzea du helburu, hezkuntza komunitate osoarekiko lankidetzaren bidez eta parte hartze aktiboan oinarrituta. Balio pedagogikoa handiko tresna da, pertsonen parte hartzean oinarritua eta ahalduz oinarritua. Egokia da kultura berri baten balioak barneratzeko, energia eta ur kontsumoak optimizatzeko, aurrerakia ekonomiko handiak lortzeko eta ingurumen inpaktuak nabarmen murrizteko.

Proiektu horretarako, EKOONen lankidetzak proposamena aurkeztu zen. Horren arabera, 42.540,97 € inbertituko dira, BEZ barne, Debagoieneko ikastetxeei energia eta ur kontsumoak murrizteko aholkularitza emateko. Guztizko kopuru honetatik, Gizabidea fundazioak 21.540,97€ ordainduko ditu eta Eskoriatzako udalak 1750,00€, gainontzekoa, Debagoieneko beste udalkek ordainduko dute.

Eskoriatzako Udalak 2023ko aurrekontuetan, Gizabidea fundazioarentzat 1750,00€ko diru laguntza aurreikusten du 0100.481.170.00.01 partidaren kargura Ikastetxeaklik proiektuak gauzatzeko.

Ondorioz, inplikaturik aldeen **LANKIDETZA HITZARMEN** hau formalizatzen dute, administrazioen arteko eta erakunde pribatuekiko harremanak ezaugarritzen dituen lankidetzak eta elkarlan espirituarekin bat etorrira, klausula hauen arabera,

BALDINTZAK



Lehena: Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua da IKASTETXEKLIK proiektua gauzatu eta finantzatzeko lankidetzaz esparrua ezartzea. Proiektua Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolan garatuko da.

Eskolan energiaren aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzeko proiektua da, hezkuntza komunitatea osoarekin lankidetzen eta parte hartze aktiboan oinarrituta.

Bigarrena: Eskoriatzako Udalak hartzen duen konpromisoa

- Eskoriatzako udalak 1.750,00€ko diru laguntza izenduna ematen dio Gizabidea elkarteari, 0100.481.170.00.01 aurrekontu aplikazioaren kontura Ikastetxe Klirik proiektua aurrera eramateko aholkularitza zerbitzuarengatik.
- Aurrezkiaren %100 ikastetxean bertan inbertituko du energia aurrezteko, eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak instalatzeko.

Hirugarrena: Laguntzaren erabilera

Emandako diru laguntza, Luis Ezeiza Herri Eskolako Energia eta ur kontsumoaren murrizketarako eta eraginkortasuna sustatzeko aholkularitzarako erabiliko da.

Laugarrena: Hizkuntza betebeharrak

Euskararen erabilera: Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren arabera, diruz lagundutako jarduerak herritar-multzo zehaztugabe batekin zuzeneko harremana edukitzea berekin dakarrenean, euskararen erabilera normala bermatu beharko da.

Hori aintzat hartuz, Gizabidea Fundazioak, eta proiektua aurrera eramateko kontratatu duen EKOON enpresak, ondorengoak beteko dituzte Luis Ezeiza Herri Eskolan Ikastetxe Klirik proiektua gauzatzerakoan:

- Haurrekiko eta ikastetxearekiko harreman oro euskara hutsezkoa izango da, bai ahoz bai idatziz, eta horretarako, euskara zuzen eta egokian jarduteko behar besteko hizkuntza gaitasuna duten langileak jarriko dira.
- Jarraipen Batzorderako izendatuko den ordezkariak ere behar besteko gaitasuna izango du bere egitekoak euskaraz gauzatu ahal izateko.
- Halaber, euskara hutsean aurkeztuko da diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria teknikoa eta ekonomikoa batzen dituen).

Bosgarrena: Gizabidea Fundazioaren betebeharrak

- Luis Ezeiza Ikastetxean energia eta ur kontsumoak murrizteko aholkularitza zerbitzuak kontratatzea.
- Proiektua aurrera eramateak sortzen dituen gastuak kofinantzatzea, Eskoriatzaren kasuan 1750,00 €.

Seigarrena: Diru laguntza ordaintzeko epeak

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

1. Zehaztutako kopuruaren %60 ordainduko da hitzarmena sinatzean; hurrengo dokumentazioa aurkeztu eta udal zerbitzuek egiaztatu eta gero:
 - a. Aurrekontua.



- b. Zinpeko aitortpena: Gizarte segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela.
2. Gainerako %40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan, seigarren puntuan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

Zazpigarrena: Diru laguntzen justifikazioa

Jarduera amaitzerakoan (2023ko azaroaren 30 baino lehen) eta justifikazio ondorioetarako, Gizabidea fundazioak ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du Udaleko Erregistro Orokorrean:

1. Diru laguntza ordaintzeko eskaera.
2. Diruz lagundutako jardueraren txosten zehatza:
 - a. Egindako lanen Memoria teknikoa
 - i. Proiektu edo jarduera osoa egin izanaren memoria zehatza: Egindako jarduerak, datak, partehartzaileak eta lortutako emaitzak.
 - ii. Egindako lana egiaztatzeko eta lekukotza emateko balio duen dokumentazio grafikoa.
 - b. Memoria ekonomikoa.
 - i. Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
 - ii. Egindako gastuen jatorrizko fakturak eta ordainagiriak.
 - c. Eskoriatzako Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeko behar diren datuak. Eskatzailea eskaera-orrian horren aurka agertzen bada, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Zortzigarrena: Jarraipen batzordea

Hitzarmen honetan aurreikusitakoaren jarraipena egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratu da. Batzordea Gizabidea eta Eskoriatzako Udaleko kideek osatuko dute, eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzordeko lehendakaria Administrazioaren ordezkaria izango da, kasu honetan alkatea, eta Gizabideako ordezkaria, Aritz Otxandiano Kanpo, izango da idazkaria.

Akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira.

Berdinketa gertatuz gero, Batzordeko lehendakariak bere kalitate boroarekin ebatziko ditu akordioak.

Jarraipen Batzordearen akordioak aktan jasoko dira.

Batzordearen bilerak lehendakariak deituko ditu, eta lehendakaria eta idazkaria, edo hala badagokio, horien ordezkariak eta kideen erdiak, gutxienez, bertaratzea eskatuko da, aurrez aurre edo urrutitik.

Nolanahi ere, Jarraipen Batzordea, akordio honetan xedatutakoak ez ezik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. Artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako funtzionamendu arauak ere arautuko dute.

Jarraipen batzordea, besteak beste, honako egiteko hauek izango ditu:

- Hitzarmenean erabakitakoaren kudeaketa, jarraipena, zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenetik eratorritako interpretazio eta betetze arazoak konpontzea.
- Egokitzeak jotzen dituen hobekuntzak eta aldaketak formalizatzea proposatzea.



- Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, adostutako jarduerak eta justifikazio dokumentazioa egiaztatzeko dagokion akta egitea.

Hitzarmenaren funtsezko aldaketarik ez dakarten aldaketa teknikoak Jarraipen Batzordeak berak erabaki ahal izango ditu.

Jarraipen Batzordea, oro har, urtean behin elkartuko da, eta, ohiz kanpo, edozein kidek eskatuta.

Bilerak bitarteko telematikoen bidez egin ahal izango dira.

Bederatzigarrena: Aldeek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzetik eratorritako ondorioak

Hitzarmenaren sinatzaile batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bere ez duen aldeari, epe jakin batean bere ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu horren berri emango zaio Jarraipen Batzorde Teknikoari.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen bada, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, ete, horren ondoren, hitzarmena suntsituzat joko da.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazteak egiaztatuta geratzen diren kalteen kale ordaina ekarri ahal izango du.

Betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea ekimen honen sinatzailearen bat banantzearen ondorioz gertatzen bada, hark dagokion kalte ordaina hartu beharko du bere gain, betetzen ari den aldeari eta bertan jarraitzen duten hitzarmenaren gainerako sinatzaileei kaltegabetsuna bermatzeko eta nolana ere, eta adierazpen gisa eta ez mugatzaile gisa, zerbitzuaren xedean egon daitekeen murrizketagatik esleipendunari legezkiokkeen kalte ordainak, baita gainerako partaideei gehiegizko karga ekonomikoak eragiteagatik eta abarregatik ere dagozkionak ere.

Betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena suntsiarazteko arrazoia badago, hamaikagarren klausulan xedatutakoari jarraituko zaio.

Hamargarrena: Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hamaikagarrena: Hitzarmena azkentzeko eta suntsiarazteko arrazoiak

1. Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xedeko jarduerak betetzen direlako edo suntsiarazteko arrazoia dagoelako. Hauek dira suntsitzeko arrazoiak:
 - a. Hitzarmenaren indarraldia igarotzea.
 - b. Sinatzaile guztien aho bateko akordioa.
 - c. Sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
 - d. Hitzarmena nulua dela deklaritzen duen erabaki judizialagatik.
 - e. Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita ez dagoen beste edozein arrazoiengatik.



2. Hitzarmena suntsitu ondoren, likidazioa egingo da, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak bete diren zehazteko.
- Likidaziotik ondorioztatzen bada alderen batek gauzatutako jardueren zenbatekoa txikiagoa dela alde horrek hitzarmenaren gainerako aldeengandik exekuzioa finantzatzeko jaso zituen funtsak baino, alde hark beste aldeetako bakoitzari dagokion soberakina itzuli beharko die, likidazioa onartzen denetik gehienez hilabeteko epean.

Aurreko paragrafoan aipatutako gehieneko hilabeteko epea igaro eta itzulketarik egin ez bada, itzulketa horri aplika dakioken berandutze interesa ordaindu beharko zaie beste aldeei, hori ere hilabeteko epean, une horretatik zenbatzen hasita. Interes hori, nolana ere, gastu publikoa eta sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantziarioa arautzen dituzten xedapen orokorren ondoriozkoa izango da.
 - Handiagoa bada, hitzarmenaren gainerako aldeek, likidazio onartzen denetik hilabeteko epean, dagokion aldeari ordaindu beharko diote bakoitzari dagokion zatia, alde bakoitzak hitzarmenaren arabera emango zituela hitz emandako zenbatekoen gehieneko mugarekin. Diferentzia, auditoria txostenetik abiatuta kalkulatu da, suntsiarazpenaren egunera arte garatutako jarduerak kontutan hartuta. Hitzarmeneko aldeek ez dute inolako eskubiderik izango gainerakoehi gehieneko muga horiek gainditzen dituen zenbatekorik eskatzeko.

Hamabigarrena: Datuen konfidentzialtasuna eta babesa

Udalak eta Gizabideak konpromisoa hartzen dute beren jardueraren ondorioz eskura ditzaketen informazio eta datuen izaera konfidentziala errespetatzeko, eta lehen aipatutako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako manuak betetzeko beharra dute.

Hamahirugarrena: Hitzarmenaren izaera

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira eta Jarraipen Batzordeak konpondu ezin baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados gaudela erakusteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Aritz Otxandiano Kanpo,
GIZABIDEA fundazioa.

Edorta Zubizarreta Alegria,
ESKORIATZAKO UDALA

